


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak

Balio fisikoei dagokienez, instalakuntza gure herriko lokal txiki bat izango da, zehazki, Galtzaraborda Hiribidea 41-en kokatua. Ez dugunez leku handirik behar, espazio txiki honekin dirua aurreztuko dugu. Material bezala, josteko makinak beharko ditugu. Makina hauek gure etxeetan ditugunak izango dira, horregatik, ez dute balio ekonomikorik. Beste produktuak, gure produktuak salduko diren dendetan erosiko ditugu, hau da, pinturak eta pintzelak. Arrautz kaxak Juantxo eta Etxeondo tabernetatik hartuko ditugu, baita hainbat jangeletatik ere. Azkenik, kremaileak eta haria, herriko josteko denda batean erosiko ditugu, zehazki, “Merceria Maite”-n. Hala ere, josteko makinak etxean ditugunak izango dira, horrela, dirua aurreztuko dugu. Garraioarekin jarraituz, kontratatutako pertsona autonomoak bizikleta bat izango du, gure materiala eramateko egokitu dena. Azkenik, salmenta puntuak hostoak eta xenpelar kulturdenda izango dira, hau da, gure herriko material denda batzuk.



Balio intelektual

Hasieran ez dugu izango, baina etorkizunean agian gure marka erregistratuko dugu.

Giza baliabideak

Sorkuntza alorretan eta ezagutza maila altua eskatzen dutenetan, giza baliabideak ezinbestekoak dira. Alde batetik, gure produktuarentzako publizitatea ezinbestekoa da, horregatik, iragarkiak egiteko pertsona batekin harremanetan jarriko gara, “Ecoavantis”-en lan egiten duen June Lopezekin zehatz mehatz. Beste alde batetik, garraiorako Jon Gonzalez izango dugu, mutiko autonomo bat, gure produktuak karga bizikleta baten bidez denda desberdinetara eramango dituenak (*Hostoak* eta *Xenpelar kulturdendara*). Gure lokala Leire Rodriguezek alokatuko digu. Hau ez da gure langilea, baina guk bertan gure produktua egingo dugu. Kanpoko elkarteekin komunikatzeaz Claudia arduratuko da, beraiekin harremanetan egongo da. Produkzioaren aldetik, Paula eta Oihane produktua ekoizteak arduratuko dira. Azkenik, Uxue izango da gure enpresaren administrazioa eta kudeaketa eramango duena.



Finantzaketa

Hasteko, enpresako bazkide bakoitzak 2000€ jarriko ditugu, horrela, 8000€ko kapitala izango ditugu, lehenengo irabaziaz berandu iristen badira, gure langileei ordaintzeko aukera izango dugu, eta baita gure soldata eukitzeko. Gainera, materialen bat hausten bazaigu, hori ordaintzeko aukera izango dugu. Lokala ordaintzeko 1500€ jarri beharko ditugu hilabetero, bertako kostuak kontatuz. Diru hori ordaintzeko, hasieran jarriko dugun kapitalaren aparte, 10.000€-ko kreditu bat izango dugu, 5 urtez iraungo duena. Gero, urte hori pasata, gure irabaziekin ordainduko dugu. Azkenik, gure bi langileak, Jon, transportaria eta June, publizitateaz arduratuko dena, 1200€ irabaziko ditute hilean. Josteko makinei dagokionez, ez ditugu gasturik izango, gure etxeetatik hartutakoak izango baitira.

